

Donostia, 2018ko urtarrilaren 5a

## ITSASERTZA BABESTEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, itsasertza babestea dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Natura 2000 Sareak gabezia ugari ditu oraindik, batez ere Kantauri aldeko eta, zehazki, euskal uretako itsas espazioei dagokienez. Nazioarteko konpromisoek itsasoa are gehiago zaintzera behartzen dituzte gobernua. Esate baterako:

- Nazio Batuen Biodibertsitate Biologikoaren Hitzarmenaren arabera, gutxienez munduko itsas azalaren % 10 babestu behar da.
- Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak ehuneko hori % 20-30era igotzea eskatzen du.
- Ipar-ekialdeko Atlantikoko Itsas Ingurunea Babesteko Hitzarmenak ere (OSPAR) itsas espazio babestuen sare bat sortzea eskatzen du, haren aplikazio eremuan zehar. Eremu horren barruan sartzen dira Kantauriko urak.

Horiek hala direla, 2010. urtean, OCEANA nazioarteko erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Biologoek Elkarteak, Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkartearekin (EIBE) elkarlanean, proposamen ofizial bat aurkeztu zuten, Jaizkibel eta Ulia parean dagoen urpeko itsasgunea Natura 2000 Sarean sartzeko eta, hala, alde horren balio ekologiko eta geologikoa areagotzeko. Horren helburua da itsasgune babestuen korridore bat sortzea Txingudiko badiarekin eta Frantziako Gobernuak euskal kostalderako egindako proposamenekin. Korridore horren barruan honako hauek sartzen dira:

11 alde babestu biltzea: 8 Hendaia eta Biarritz artean eta 3 Donostia eta Hondarribia artean.  
113 habitat eta 928 itsas espezie: 8 habitat eta 104 espezie babestu.

Eusko Legebiltzarrak 2011ko otsailaren 8an egindako bilkuran, 5/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen inguruan.

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurune Ministerioari eskatzen die azter dezatela 2011n zehar Oceana Elkarteak eta Euskadiko Biologoek

Elkargoak egin duten 'Protección de la zona marina de Jaizkibel y Ulia, Euskadi. Propuesta científica para la creación de un corredor ecológico marino entre Ulia (Donostia) y Biarritz' izeneko azterlana, eta elkarlanean aritu daitezela inguru horretarako egokienak diren neurriak eta babesereduak zehaztearren, hala badagokio Natura 2000 sarean sartuz".

Kostaldea modu eraginkorragoan babesteko, hala nola Donostia eta Biarritz artean 27.000 hektareako itsas korridore ekologiko bat sortuz, hainbat bilera egin beharra dute arlo horretan eskumena duten administrazioek.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

#### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bete dezala 5/2011 Legez besteko Proposamena, Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen ingurukoa.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bidal dezala Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen inguruko 5/2011 Legez besteko Proposamena betetzeko egin dituen gestioei buruzko informazio guztia.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia